



BARREN  
TOKIKOM



**Rahma Zaroual:  
emakumea,  
elgoibartarra**

HURRENGO ERAIKUNTZA

# UZTARRI ETXEAK

11 kalitatezko etxebizitzak Elgolbarren



## Etxebizitza erabilgarri eta erosoak, zentzuzko prezioan


Kokapen ezin hobean: herrigunetik 5 minutura oinez eta zerbitzu guztiak eskugarai. Elgolbarko Santa Klara kalea, 11 zenbakian.

- 90 eta 60 metro koadroko etxeak (2 eta 3 logeladunak)
- Terraza zabalak eta orientazio egokiarekin
- Trastelekua barne eta aparkalekua aukeran
- Sukalde, jangela eta egongelarekin loturiko terraza
- Sukalde hornitua eta horma-armairuak

Zure beharretara antolatutako etxebizitzak dira, eta kalitate goreneko materialekin egindakoak.

2 LOGELA 120.000tik AURRERA

3 LOGELA 227.000tik AURRERA



Salmenta:

**943 741 528**

[www.bikun-eraikuntzak.com](http://www.bikun-eraikuntzak.com)

Finantziaketa:





GARAZI AYESTA

## “Gizon batek esan zidan zorteko nengoela horrenbeste suhiltzaile ‘katxas’ inguruan edukita”

**D**uela egun batzuk, lanean nengoela, suhiltzaileen inguruko albiste bat kubritzea tokatu zitzaidan. Ohikoa dugun bezala, kameralariarekin elkartu nintzen gure egoitzan eta bertara joan ginen. Ohikoa den bezala, beste komunikabide batzuetako kazetari eta argazkilariak ere bazeuden bertan. Ohikoa den bezala berrikerian egon ginen, ekitaldiaren gainekoak komentatzen eta gure ogibideaz kexu. Halako batean, han hurbildu zitzaidan berrogeita piku urteko gizonazkoa, argazkilari bat. Besterik gabe, zorteko nengoela leporatu zidan, horrenbeste suhiltzaile *katxas* inguruan edukita. Ni bezalako neska gazte polit batentzat, a ze pagotxa laneko zapatu goiza horrela pasatzea! Grazia egin zion, antza, bere komentarioak, eta hazten joan zen; testosterona, badakizue. Ea nongoa nintzen eta ea nireira suhiltzaileen egutegia iritsi zen galdetu zidan, keinu batez. Nahikoa ez eta bera ere suhiltzaile izan

zitekeela esan zidan irribarretsu: ez al duzu uste? Imaginatu nazazu, egutegian olio z bustita. Maizegi bizi dugun horrelako egoera askotan bezala, isilik geratu nintzen hasieran; badakizue, lanean nengoen. Eta badakizue, hasi berria naiz honetan. Eta, badakizue, neska gazte polit bat naiz eta neska gazte politek ez dute hogeitaz urte nagusiagoa den gizon matxista pikutara bidaltzen. Ahal izan nuen bezala esan nion ezetz, nahiago nukeela erre-dakzioko goxotasunean egon eta ezetz, ez zitzaidala egutegi hori iritsi, eta ezetz, ez nengoela horrelakoetan interesatuta. Alde egin zuen azkenean, lana egin behar zuela gogoratuko zuen, akaso. Ohikoa den bidetik joan zen grabaketa. Ohikoa den bezala erredakziora bueltan ginen eta kameralariari kontatu egin nion tipo horrek esandakoa. Eta ohikoegia den bezala, berriro ere entzun nuen gizonazkoa baten ahotik: tira neska, ze exageratuak zareten emakumeak; *si es el puto amo*.



NORA HADI

## “Mutil gazteei esaten al dizkiete ba horrelakoak?”

**O**hikoa den bezala. Noiz arte izango da ohikoa? Horrela da, Garazi, niri ere tokatu zait *puto amo* ren bat edo beste parean, ospitalean lanean, nengoela; “Izen polita duzu, Nora, nongoa zara?”. Galdera tipikoak, baina egin beharrekoak, eta entzun beharrekoak. “A ze suertea nire, 20 urteko neska gazte baten eskuetan egotea!”. Ohikoa den bezala, atseginak izaten ari direla esango dute batzuek, edota esker txarrekoak eta umore onik ez duten bi neska petral moduan ikusiko gaituzte beste zenbaitek, hitz politak ez apreziatzeagatik. Baina mutil gazteei esaten al dizkiete ba horrelakoak? Akaso, mutil gazteek ez al dute ba merezi beraiekin atseginak izatea?

Zuk ondo diozun bezala, Garazi, egunerokotasuneko gertakariak dira, eta askotan gu geu ere ez gara jabetzen, edota errazagoa egiten zaigu jaramonik ez egitea. Izan ere, ez ditugu matxismoak kutsatutako gizarte baten ondorio moduan identifikatzen. Seguru honezkero, batek baino gehiagok feminista etiketa jarri digula orainoan, hau zerbait muturrekoa eta negatiboa de-

lakoan. Harrigarria bada ere, oraindik feminismo hitzak atzerakada eragiten die zenbaiti, eta asko dira beraien burua feministatzat ez dutela harrotasunez adierazten dutenak. Bai emakume eta baita gizonak ere. Betidanik ezagutu eta goraiatu izan dira gizon borrokalarien lorpenak, emakume borrokalari gehienak es-talpean aritu diren bitartean, zarata askorik egin gabe. Poliki-poliki, emakume hauen lorpenak ezagutuz goaz, askotan medio gutxiagorekin, izugarriko lorpenak egin dituztenak: zientzian, kirolean, politikan, artean eta beste zenbait eta zenbait alorretan. Beraz, bada garaia merezi duten protagonismoa izan dezaten.

Eta gaur, emakumeen nazioarteko eguna den honetan (bai, gaur ere martxoak 8, zergatik ez), egin dezagun korrika gaur ere, Garazi, emakumearen alde, bion alde, izerdiz blai, feminismoaz blai. Bide luzea dago oraindik egiteko, baina jarrai dezagun korrika, eta inork dudarik balu, argi eta garbi hitz egingo dut emakume borrokalari guztion izenean, esanez gu erronkarako prest gaudela. Eta umetan horren gogoko nuen *Ama begira zazu* antzezlanean zioten bezala: “Emakumeok, beti aurrera!!!”.



## Depurazioak duen garrantzia

bai helduek, bai nagusiek; betiere kontuan hartuta norberaren osasuna edo gaixotasunak, badaudelako, zenbait gaixotasuni aurre egiteko sendagaiak direla-eta, ezin direnak jaki, belar edo sustantzia konkretu batzuekin nahastu.

Zenbat egunekoa izango da garbiketa?

**G**aur egun sarri hitz egiten da gorputzak behar duen garbiketari buruz, baina zer esan nahi du garbiketak? Garbiketa edo depurazioa gure gorputzak dituen zikinak eta toxinak ateratzean datza. Zikin horiek ateratzeko modu eta teoria ezberdin asko daude, nik aipatuko dudana ez da izango egin ahal den modu bakarra, baina bai nire ikuspuntutik begiratuta egokiena.

Zeinek egin beharko luke garbiketa? Proposatuko dudana hau edozeinek egin ahal izango du, bai umeez, bai gazteek,

*“Garbiketa edo depurazioa gure gorputzak dituen zikinak eta toxinak ateratzean datza”*

Nik 40 egunekoa proposatuko dut, baina badaude egun batetik hasten direnak eta 40 egun baino gehiago irauten dutenak ere.

Zelan egiten da garbiketa? Proposamena hau da: lehenengo elikaduran zenbait aldaketak egitea. Ez da ezer konplikatu izango: alde batetik, postreak gure egunerokotasunetik atera egingo ditugu, hau da, fruta edo jogurtik ez dugun jango bazkalostean eta afalostean, baizik eta goiz erdian eta arratsalde erdian. Bestetik postre-zat belar-ura hartuko dugu.

Zein belar-ur da egokia? Bada, depuratioak, digestiboak edo erlaxagarriak dira nire ustez egokiak.

Garbiketa sakonagoa izan dadin, pertsona bakoitzaren egoera aztertuta, ikusiko genuke zein izango litzatekeen egokiena: preparatu zehatzen bat gibela edo giltzurrunak edo dena delakoa garbitzeko, betiere pertsonaren egoera momentu zehatz horretan begiratuta, izan ere, egoerak aldatu egiten dira, eta, esaterako, duela bi urte egingakoak, beharbada, gaur egun ez ditugulako onura bera egingo.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Susketarako lehenengo

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)  
Publizitatea: 943 743 704 - [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar  
1821-2021



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

## ► AKORDEOI KONTZERTU ZORAGARRIA

Zorionak akordeoi-jole talde bikain horri, martxoaren 5ean ikuskizun paregabea eskaini ziguten-eta. A zer gozamenena! Zorionak, era berean, zuzendariari. Zuek entzutea oso atsegina izan zen. Zer zoragarria tangoa: bi dantzarien eta akordeoi-joleen arteko bategitea bikaina! Eta amaiera zirrargarria izan zen, Kultur Etxeko sotoak dar-dar egiten zuen-eta.

Hori guztia bere garaian Haizeako kide izan ziren emakume talde bati esker, eta zeregin horretan jarraitzen duten horiei esker. Haiek gabe ezinezkoa izango zen, herrian bertan lan garrantzitsua egiten dute-eta.

Zorionak eta mila esker.

F.F.

## ► GILLERMO INTXAUSTIREN ALBUMA

Gure aita, Guillermo Intxausti, 102 urterekin hil zen. 100 urte bete zituztenean omenaldi bat egin zioten Seguran, bere jaioterrian eta ospakizun handia izan zen. Horren aitzakian argazki album bat prestatu genuen eta nik gordeta daukat etxean. Argazki berberekin beste bat ere bageneukan, ordea, eta bigarren album hori norbaiti utzi nion orain dela bi urte eta oraindik ez dit bueltan ekarri. Hainbati galdetu diot ea beraiek ba ote daukaten, baina ez dut aurkitu albuma laga nion hori. Ez daukat gogoan baina nori utzi nion. Baliteke berak ahaztuta izatea, baina bistan izateko moduko albuma denez, hau irakurriz gero, gogoratuko zaio. Beraz, eskutitz honen bidez eskatu nahi diot argazki albuma etxean daukan horri lehenbailehen itzuli diezadala, niretzat oroitzapen asko gordetzen baitituzte argazki horiek. Nirekin harremanetan jartzea edo Azkue ar-

gazki dendan uztea eskatzen diot, ikusteko utzi arren nik nire etxean gorde nahi baitut albuma.

Elena Intxausti

## ► BERDINTASUNA ETA ELKARLANA

Martxoaren 8a dela-eta hainbat ekintza antolatu dira Mendaron, Udalak kudeatzen dituen Ludoteka eta Gaztelekuaren ekimenez: giza katea, film emanaldia eta erakusketa (martxoaren 22ra arte ikusgai Udaletxeko sarrera solairuan).

Ekintza hauek guztiak ez lirateke posible izango herriko hainbat pertsona eta elkarteren laguntza eta inplikaziorik gabe. Beraz, lerro hauek aprobetxatu nahi ditugu, ekimen honetan parte hartu duzuen guztiei eskerrak emateko eta ekintzetara hurbildu zaiten guztioi ere bai. Zuen elkarlanari esker berdintasunerako bidea xamurra goa izango dela espero dugu.

Martxoaren 8ak bi lema bat egin ditu zuei esker: berdintasuna eta elkarlana.

Elkarlana baita edozein lorpenerako bidea.

Mendaroko Ludoteka eta Gaztelekua

## ► LARUNBATEAN ANDOAINERA!

Larunbatean Andoaingo Ipar Haizea plataformak deituta, Osasunaren aldeko eta Errausketaren aurkako marxa egingo da arratsaldeko 17:00etan, Etxeberrieta plazatik aterata. Andoain, oso hurbil geratzen da Gipuzkoako Foru Aldundiak Zubietan eraiki nahi duen erraustegiaren gunetik (5 km). Manifestaziora Gipuzkoa osoko herritarrei egin diete dei Andoaindik, Elgoibar eta Mendaroko herritarrak ere gonbidatuta gaude.

Duela gutxi Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeko medikuek (OEIT)

azaldu dute, hondakinen errausketak arriskuan jartzen duela pertsonen osasuna, baita 20 kilometro arteko distantzian ere. Honen arrazoa da zaborraren errausketak guretzat eta ingurumenarentzat kaltegarriak diren gas eta hauts asko sortzen dituela.

Produktu horiek minbizi mota batzuk eta diabetesa jasateko probabilitateak areagotzen dituzte. Ume jaioterrietan malformazioak %30 handiagotzen dira, giltzurrun displasiak %50. Minbiziari dagokionez, esaterako, pleurako tumore baten ondorioz hiltzeko aukera %84 handitzen da.

Martxoaren 12an, Andoainean egingo den marxak balio behar du arazo larri honetaz herritar guztiak jakinaren gainean jartzeko eta agintariei errausketa proiektuak bertan behera utzi ditzaten eskatzeko. Animatu zaitzete, eta goazen Andoainera! Errausketarik ez inon!

A.I.

## ► OHARRA

BARREn zerbait argitaratu nahi duzuenok edo erredakziora informaziorik bat bidali nahi duzuenok kontuan izan martxoaren 25ean ez dugula aldizkaririk argitaratuko, oporrak direla eta. Martxoaren 18ko alearen ostean, apirilaren 1ean kaleratuko dugu hurrengo.

BARREN

## Ainara Ladronen Martuteneko kartzelan jarraituko du martxoaren 18an epaiketa izan arte



Domekan kontzentrazioa egin zen Kalegoen plazan.

Zarautzen atxilotu zuen Ertzaintzak Ainara Ladron gazte elgoibartarra aurreko zapatuan. Arrano elkartera sartu eta preso eraman zuten Ainara Ladron. Minutu batzuk lehenago, desobedientziaren aldeko prentsurreko bat eman zuen.

Ainara Ladron eta beste lau gazte martxoaren 3an epaitu behar zituzten Donostiako Lurralde Auzitegian, orain dela bederatzita urte AP-8 autopistan trafikoa eteteagatik, Segiren ilegalizazioa salatzeak. Fiskaltzak bina urte eta erdiko kartzela zigorra eskatu du bost akusatuentzat.

Ainara Ladronen eta epaitu beharreko beste bik (Naroa Ariznabarreta eibartarrak eta Aritz Azkona arrietarrak) epaiketara ez agertzeko erabakia hartu zuten, eta epaileak hirurak atxilotzeko agindua eman zuten. Ariznabarreta eguen goizean atxilotu zuten.

### “Desobedientziaren bidean”

Zarauzko prentsurrekoan, orain bederatzita urte abiatutako “desobedientziaren bidean” jarraitzeko erabakia iragarri zuten Ainara Ladronen, “hori delako bizi dugunaren gisako salbuespen egoerei aurre egiteko modu bakarra”.

“2007an burutu genuen ekimen horrekin desobedientziaren bideari ekin genion. Hautu horrekin jarraitu dugu orduetik egindako lau epaiketa saiakeretan, deso-

bedientzia jarrera ezberdinekin: auzitegira ez agertuz edo epaiketari bertan planto eginez. Horregatik, gutako hiru kartzelaratzeko agindua eman dute”, adierazi zuten prentsurrekoan.

Handik minutu batzuetara, zenbait gaztek lagunduta Arrano Elkartean sartu zen elgoibartarra, eta ertzain talde batek han atxilotu egin zuten.

Lekuko arabera, operazio handia izan zen, 50 polizia bano gehiago parte hartu baitzuten. Handik ordu batzuetara, Aritz Azkona atxilotu zuten Fruizen (Bizkaia).

Ainara Ladron eta Aritz Azkona, polizia-etxean bi gau pasa ondoren, epailearen aurretik pasatu ziren astelehenean, eta Martuteneko kartzelara bidaltzeko agindu zuten. Naroa Ariznabarreta ere

han dago eguenaz geroztik. Epaileak dagoeneko jarri du epaiketaren data: martxoaren 18a. Bitarte horretan, Martuteneko kartzelan jarraitu beharko dute hirurek.

### ‘Martxa laranja’

Ainara Ladronen atxilotetaren aurka protesta egiteko kontzentrazioa egin zen Elgoibarko Kalegoen Plazan domekan. Arbizun ere (Ainara gaur egun han bizi da) elkarretaratzeak egin dira.

Libre mugimenduak martxa laranja antolatu du domekarako (martxoak 13). Martuteneko kartzela aurrera protesta egiteko deia egin du, hiru gazteei elkartasuna adierazteko. Horrez gain, martxoaren 18an Donostiako auzitegiara joateko deia ere zabaldu dute.



Ainara Ladron atxilotu zuten unea (argazkia: Argia).

## Grezia eta Mazedonia arteko mugara bidaliko du 2-dean B-rotuz taldeak bildutako dirua



Lesbosera bidaltzeko 13.000 kilo material jaso zituen bitartean, itsulapiko batzuk jarri zituen Elgoibarren material hori bidaltzeko 2-dean B-rotuz taldeak. 2.143,14 euro batu zituen, baina BESA enpresak finantzatu zuenez garrarioa eta logistika, dirua premia handia dagoen lekuren batera eramateko erabakia hartu zuten. Azkenean Idomenira bidaliko dute (Grezia eta eta Mazedonia arteko mugara), han dabiltzan bi boluntarioen bitartez. Han 13.000 pertsona bizi dira, oso egoera txarrean. Zehaztapen guztiak Facebook-eko bere kontuan argitaratu ditu 2-dean B-rotuz taldeak.

## Udalak eskerrak eman dizkio San Lazaro egoitzari urteetan eskainitako lankidetzagatik

San Lazaro Egoitza Kabia foru organismoaren esku geratu zen iazko maiatzean eta ordutik zerbitzuak Udalak kudeatu ditu behin-behinean, kudeaketa horren kontratazioa egin artean. Lizitazioa Biharko Gipuzkoa SL enpresak eskuratu du, eta enpresa horrek ekin zion egoitza kudeatzeari martxoaren 1ean. Dagoeneko Udalak ez du inolako kudeaketa funtziorik.

Ane Beitia alkateak, Udalaren izenean, eskerrak eman dizkio San Lazaro egoitzari, eskainitako lankidetzagatik. "Funtsezkoa izan da, gure egoiliarrei emandako zerbitzuak helburu nagusienetarikoa bat betetzeko: komunitatearen inguruarekin erlazioak mantendu eta bertan parte hartu", eskertu dio.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

**Garazi Sampedro Arando**  
RPS 169/15

**ERROSARIO**  
HAGIN KLINIKA

Errosario, 7  
Elgoibar  
943 743 679

RPS 183/12

**Uzuri**  
optika audio

Elgoibar  
Tel.: 943 740 359

Deba  
Tel.: 943 192 192

**Mari Jose Ruiz Porres**  
Doktorea

**GINEKOLOGOA**

R.P.S. 82/15  
Madina Radiologia  
Toribio Etxeberria 4, 1 - Eibar  
Tel.: 943 202 857  
[mj.ruizporres@gmail.com](mailto:mj.ruizporres@gmail.com)

**Jeku eder**  
horts klinika

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Aita Agirre Enparantza, 5  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 530 053

**federópticos**

**ikus**

RPS 65/07

San Bartolome, 10  
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12

**ainhoa**  
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar  
943 531 953  
669 565 745

**aldaz**  
horts klinikak

RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22  
20870 Elgoibar

**fisio&más**  
Fisioterapia aurreratu eta  
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13  
943 740 191 / 667 933 628  
[www.fisio-mas.com](http://www.fisio-mas.com)

RPS 172/18

**CLINICA DENTAL ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA

RPS 88/15

Elizbun, 3 - SORALUZE  
Tel.: 943 752 567

Astelehenerik ostiralera  
10:00-13:00 / 16:00-20:00  
e-mail: [elizpe3@gmail.com](mailto:elizpe3@gmail.com)

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

# “Elkarren arteko hesiak bota behar ditugu talde bateratuak sortzeko”

## ▶ **RAHMA ZAROUAL LARABECHI** LOREAK ELKARTEKO PRESIDENTEA

Arabiarra da Rahma Zaroual Larabechi (Bouarfa, Maroko, 1986), Elgoibarren bizi den beste hainbat arabiar bezala haurra zela Espainian sartu eta hiru urte dira gurean dagoela. Bere komunitatean askok ez bezala modu irekian hitz egin du bere komunitateari, erlijioari eta emakumeei zein migratzaileek gurean duten espazioari buruz. Izan ere, kulturartekotasuna, integrazioa eta gizarteratzea bultzatzeko sortu duten Loreak taldeko presidentea da. Elkarteko lehen pausoak bai, baina Elgoibarko bere bizimodu eta emakumek bere kultura eta erlijioan duen tokia izan dira batik bat berbagai.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -



### ◆ **Nolatan etorri zinen Elgoibarrera?**

Marokotik 2000. urtean Toledora eramantzen gintuen aitak, familia bateratzeko. Gero aitak lana aurkitu zuen Murtzian eta hara joan ginen. Han senarra ezagutu nuen, han ezkondu eta gero Euskal Herriara etorri ginen, senarraren lana zela-eta. 2010etik Eibarren egon nintzen eta 2013an, babes ofizialeko etxebizitza eman zigutenean Elgoibarrera etorri ginen bizi izatera. Lan aukerak bilatzeak bultzatuta mugitu gara batetik bestera.

### ◆ **Zergatik aukeratu zuten migratzaile askok Euskal Herria?**

Lan aukera gehiago dagoelako, baita ikastaroak egiteko ere. Nire senarra, esaterako, Marokon Ekonomian Lizentziatua da eta ikastaroak interesatzen zitzaizkion. Murtzian oso gasteentzat dira eta hemen ez dago hainbesteko mugarik. Nik ere informatika ikastaro bat egin nuen eta gero eskola-graduatu atera nahi nuen, baina haurdun gelditu nintzen eta ezin izan nuen. Orduan umeei egon naiz eta senarra ikasten ari denez ordutegia ezin izan dugu moldatu.

### ◆ **Pozik al zaude Elgoibarren?**

Bai. Bizi izatera etorri ginenean bizilagunek ondo hartu gintuzten. Orokorrean, ordea, zailagoa da harremana. Kostatzen zaigu, bi aldeetatik, zabaltea. Guri besteengana joatea, hitz egitea... eta bertakoei gugana gerturatzea.

### ◆ **Zergatik daude zailtasunak elkarrengana gerturatzeko?**

Izan daiteke islamofobiaren kontu asko entzuten dituztelako. Azken urteotan gertatzen direnak ikusita askok uste du zapia erabiltzen dugun emakumeok edo gizonen bizardunak terroristak edo yihadistak garela. Gainera, Elgoibarren, koadrilen kontua oso zabaldua dago eta zaila da koadriletan sartzea. Nik Eibar eta Elgoibar artean aldea sumatu dut. Eibarren irekiagoak dira, gure parte hartzea nahi dute, lagun taldean sar gaitezen...

### ◆ **Egon liteke zuek ere koadrilak dituzela pentsatzen duenik, ezta?**

Baliteke. Parkean, adibidez, elkarrekin hiru-lauko taldeetan elkartzeko gara, baina besteekin hitz egiteko eta elkartzeko ez dago arazorik. Eskola inguruan ezagu-

tzen dut hemen bertako jendea, baina sarri-irteeretan baino ez dugu hitz egiten. Talde bateratuak sortu beharko liriteke eta horretarako gauza bakarra egin behar da: elkarren arteko hesiak bota.

### ◆ **Zein iritzi duzu Elgoibarren jasotako tratu sozialari buruz?**

Ona dela uste dut. Joaten naizen edozein tokian tratua jaso dut, informazioa eman izan didate, lagundu... Gainera aldea sumatu dut Euskal Herriaren eta beste toki batzuen artean. Txikitik, aitak Espainian sartu ninduenean baztertuta sentitu nintzen. Institutuan *bullinga* jasan nuen. Arbelera irteten nintzenean barre egiten zidaten, bultza, ez zuten nahi nik beraien gauzetan parte hartzerik... Beraz, ikasteko gogoia joan zitzaidan.

Euskal Herrian, ordea, sekulako aldea sumatu dut. Umeei ez dute horrelako arazorik. "Euskaldunagoak" dira behar bada. Hemen jaiotakoak izanik erraz integratzen dira. Kalean elkartzeko gero elkarrekin jolasten dira eta jolasak zein jostailuak partekatzen dituzte. Murtzian, esaterako, nire ahizpa bizi da, eta parkean



bere umeak espainiar baten jostailua hartuz gero haren amak erakusten dio ezin dela ume migratzaile batengana gerturatu, beraz, beti aparte egoten dira. Kallean toki bat non dagoen galdetuz gero ere, azaldu edo hara eraman izan naute, bizi izan naizen beste lekuetan hitza ukatu didate, ezin izan naiz gerturatu ere egin. Hemen irekiagoak zarete, laguntza eskaintzen duzue, gure egoera ulertu...

#### ◆ **Musulmanak itxiak zaretela esan ohi da. Egia al da hori?**

Kultura ezberdinak diren arren, gu ere gizakiak gara, sentitzen dugu eta ideak partekatu nahi ditugu, parte hartu, beste kultura batzuk ezagutu, hori gustatzen zaigu. Guran eragina du jendeak pentsatzea oso itxiak garela, erabat ezberdinak. Ezberdintasunak egon badaude erlijioak eta bizimoduan. Gure kulturen jendea ez da asko irtetzen kalera, familia inguruan zaintzea gustatzen zaigu. Hemen jendeak ordu asko pasatzen ditu kallean edo tabernetan. Hori ohihurtu kontua da.

#### ◆ **Zuen kulturen, badirudi gizonezkoak kalera gehiago irtetzen direla eta emakumeekin gutxitan ikusten dira.**

Emakumeak pisu handia du: etxea, umeak... Baina jende gazteak idea hori aldatu egin du. Emazteak eginez gero senarrak ere egin behar duela uste dugu. Nire etxean hasieratik banatzen ditugun lanak. Nik beste zeregin batzuk ditudanean senarrak umeak zaintzen ditu, sukaldarian ibiltzen da, garbiketarik egiten ditu... Kalera bakarrik eta edozein ordutan irteke ere ez dit inolako mugarik jartzen, askok alderantziz uste badu ere.

Nagusiagoak beti pentsatu izan dute emakumea etxekoa dela. Gurean, hala ere, sekula ez digute hori buruan sartu. Ni Toledora iritsi nintzenean aitak garbi esan zidan: "Sartu autobusean eta joan zaitez, ni ez naiz zurekin joango, zure bizimodua zuk ateratu behar duzu". Gaztelan ez ez nekien, baina aitak hori egin izanari esker ulertu eta ikasi ditut gauza asko.

#### ◆ **Kezkatzen zaitu jendeak pentsatzeak musulman guztiak berdinak zaretela?**

Pena da, baina bai. Hala ere, azken urteetan gauzak asko aldatu dira. Gure

erlijioak ez du esaten emakumeak etxean egon behar duenik edo gizonezkoak lagundu behar ez dionik. Berdinak gara gizon zein emakume. Koranak dio emakumea oso ondo zaindu behar dela bera baita bizia ematen duena. Gaur egun, jendeak Koraneko hainbat gauza hartu eta irakurketa propioa egiten du, batzuetan okerra, esaterako, matxismoaren ikuspegitik. Baina emakumeak herrian parte har dezake.

*"Kultura ezberdina izan arren, gizakiak gara, sentitzen dugu eta ideak partekatu nahi ditugu"*

#### ◆ **Emakumeek zapia eramateak ere sortzen du zeresanik.**

Ni sekula ez naute derrigortu zapia jartzera, nire kabuz egiten dut, gustatzen zaidalako. Lanpostu askotan ere kentzea eskatzen dute, baina nik ez nuke egingo. Erabaki pertsonala eta librea da, hemen neska batek minigona erabiltzea bezalako. Denok izan behar genuke libre nahi duguna janzteko.

#### ◆ **Zer esango zenieke migratzaileak onartzen ez dituztenei?**

Pentsaera aldatzeko denok garelako gizakiak eta denok dauzkagulako pentsamendu eta sinesmenak eta berdinak gara

eta norbaitek zerbait ez badaki galdeztera ausartu behar da. Esaterako, norbaitek zerbait gaizki eginez gero jendeak pentsa dezake denok berdinak garela eta ez da hala.

#### ◆ **Elgoibarko meskitara joaten zara?**

Ez naiz sekula joan denborarik ez dudalako, beraz, otoitzak etxean egiten ditut. Musulman guztiarentzat irekia dago, nahiz eta jendeak uste gizonezkoentzako bakarrik dela.

#### ◆ **Loreak elkarteak sortu duzue. Migratzaileentzat bakarrik?**

Ez, migratzaile eta bertakoentzat. Asmoa da elkartearen baitan herriko emakume guztiok ideak partekatzea elkarren kulturen berri jasotzeko eta emateko. Oraindik ez gaude jende asko eta elkartearen berri eman nahi dugu jendea animatzeko. Sukaldaritza ikastaro bat egin nahi dugu jendea taldean sartu dadin. Irteerak antolatzea ere gustatuko litzazuke inguruak ezagutzeko.

Oraingoan elkartearen eskulan ikastaroen baina ez gara ari. Migratzaileei, gaztelania eta euskara ulertzen ez dutenei ere, oinarriak ematen dizkiegu egunerokotasunera ohitzeko eta modu independentean moldatzeko. Izan ere, badira emakumeak sendagilearengana joan behar dutenean senarraren laguntza behar dutenak eta horiek lanean huts egin behar dute.

Nik euskara ere ikasi nahi nuke. Taldea sortzen ari gara, baina gutxienez zortzi laguneko taldea behar dugu.



Rahma (ezkerretik hasita hirugarrena) Loreak elkarteko kideekin.

## Hamaika ekimen berdintasuna aldarrikatzeko

Europako udalen adierazpen instituzionalarekin bat egin du Elgoibarko Udalak. Horrenbestez, berdintasuna agenda politikoaren erdigunean egongo da eta Berdintasun Saila egonkortu eta sendotuko da. Ekitaldiak ugariak izan dira: martxa morea, Indiako emakumeei buruzko argazki erakusketa, emakumeen bazkaria, akordeoi kontzertua...

Mendaroko kaleak, berriz, Martzela Osororen izenarekin agertu ziren martxoaren 8an. EH Bilduk kale izendegian andrazkoen izenak sartzeko beharra irudikatu zuen horrela. Gobernu taldeak Martzela Osorori kale baten izena emango diola aurreratu du. Horrez gain, herritarrek berdintasunaren aldeko giza-katea ere osatu zuten Mendaron.



Arg.: elgoibar.eus



## ▶ Gerran fusilatutako gudari baten gorpuzkiak atera ditu Aranzadik Elgoibar eta Etxebarria arteko mugan

**Paco Etxebarria forentsea buru, Elgoibarko mugatik metro batzuetara aurkitutako hobia atera zuen Aranzadi Zientzia Elkarteak zapatuan (martxoak 5). Momentuz, pertsona bakar baten gorpuzkiak atera ditu. Ahaztuen Oroimena 1936 elkarteak jasotako lekukotzen arabera, beste bi pertsona egon litezke lurperatuta, baina euriak, hotzak eta sortutako lokatzak lanak zaildu zituzten, eta beste egun baterako laga behar izan zituzten gorpuzkiak ateratzeko lanak.**

Ezin eguraldi petralagoa izan zen aurreko domekan, 1937an fusilatutako gudarien gorpuzkiak Zelaiburuko lurretatik ateratzeko, Etxebarrian, Elgoibarko mugan ia. Paco Etxebarria forentsearen lan-taldeak taldoa jarri behar izan zuen lana egokiago egiteko. Hala ere eguraldiak ez zuen lana amaitzen laga.

Zuloa egin eta 50 bat zentimetrorra eta pertsona baten hezurak agertu ziren, erabat hondatuta. Zelaietaburu ingurua oso agerian dago, eta hezetasunagatik hezurren deskonposizioa bizkortu egin da.

Zuloan, lokatz artean, dozenaka bala azaldu ziren; asko eta asko erabili gabe-koak, balazorro eta guzti. Paco Etxebarriaren arabera, fusilatutakoak normalean ez zituzten munizio eta guzti lurperatzen.

Zapatuko lanek eten bat izan zuten,



*Aranzadi Zientzia elkarteak pertsona baten hezurak lurretik ateratzea lortu zuen.*

**Ahaztuen Oroimena  
1936 elkarteak  
jasotako lekukotzen  
arabera, beste  
bi gorpu gehiago  
egon litezke han**

hildakoei lore eskaintza egiteko. Jesus Iriondo Etxebarriako alkatea, Josu Erkorrea Jaurlaritzako bozeramailea, Monica Hernando Biktimen zuzendaria, Julen Arzuaga EH Bilduko parlamentaria eta Ar-

naldo Otegi Sortuko idazkari nagusiak parte hartu zuten. Haien ondoan izan ziren Luis Ortiz Alfau Izquierda Milicianako miliziano ohia, Elgoibar 1936 elkarte-kideak eta Ahaztuen Oroimena 1936 elkarteak.

Lekukotzen arabera, beste bi gorpu egon litezke han. Eguraldiagatik, beste egun baterako laga ditu lanak Aranzadik.

### **Lekukotzak**

Urtarrilean, Zelaietaburuan, antifrankisten kokapen bat berreskuratu zuen Ahaztuen Oroimena elkarteak. Garbiketa lanetan ordezkari hartz batzuk aurkitutakoan jarri ziren harremanetan Aranzadi Zientzia Elkartearekin. 1937ko apirilean borrokaldi bat izan zen inguruetan. "Zelaietaburu ondora arte sartzea lortu zuten milizianoek, baina faxistek harrapatu eta haietako hiru unean bertan harkaitzetan fusilatu zituztelakoan gaude. Lubakiaren zuloa aprobetxatuz han hobiratu zituztela uste da", elkartearen arabera.

"Honen berri jaso ahal izan dugu Jose Mari San Martin eta Maria Pilar San Martin, Soarte baserrian jaiotakoak, haurrak zirela bizitakoa beraien memorian jaso eta eskainitako testigantzen bidez", argitu du elkarteak.



*Paco Etxebarria Forentsea, Zelaietaburuan, lanean.*

# “Gupidarik gabe presio egin behar diegu gobernuei Siriako egoera konpontzeko”

► **MIKEL ARAMENDI** KAZETARIA, NAZIOARTEKO GAIETAN ADITUA



*Mikel Aramendi, eguaztenean Kultur Etxean emandako hitzaldian.*

Eguaztenean, Elgoibartik Lesbosera 13 tona arropa iritsi eta oso egun gutxitara, Mikel Aramendi kazetaria izan dugu Elgoibarren, Siriako gerra eta errefuxiatuen egoera ulertzen laguntzeko, Gazte Asanbladak antolatutako *Errefuxiatuak: helmugarik gabeko ihesa* zikloan. Ekialde Ertaineko egoera sozial eta politikoa ulertzeko hainbat gako eskaini zituen Aramendik, eta ezagunak ez diren hainbat kontu argitzen saiatu zen. Siriaren egoera geostrategikoa, borrokan ari diren alde desberdinak, Mendebaldearen papera, Estatu Islamikoa, Europaren erantzukina edota errefuxiatuek nondik nora jotzen duten izan aipagai.

- OIER NARBAIZA -

## ♦ Zer gertatzen ari da Sirian?

Gerra zibil multilateral bat gertatzen ari da. Gerra zibil asko bilateralak izaten dira, eta Sirian, hasieratik, alde bi baino gehiago daude. Alde batetik dago Gobernua eta nolabait esateko haren kontra dauden indarrak, baina azken hauek ere elkarren aurka daude eta gainera haietako batzuk ere ez daude Gobernuaren

hain kontra. Hau gerra zibil poliedriko bat da. Beste alde batetik, gerra hau elikatzen edo bultzatzen duen kanpoko potentzia bakoitzak bere jokoa dauka eta hor traveskatutako hainbat harreman dago. Baxar al-Assaden Gobernua ez da guztiz homogeneoa izan, batez ere gerraren hasieran, eta geroztik ere badaude hainbat jarrera eta interes ezberdin. Siriako mino-

ria etno-erlijioso guztiak, sunira arabiarrek salbu, nola edo hala Gobernuaren alde daude. Minoriak dira, baina ez dira minoria mespretxagarriak: esate baterako, kristauak 1,5 milioi edo gehiago dira eta nonbait kokatzekotan Gobernuaren alde daude. Aniztasun erlijiosoa ikusgarria izan da beti.

♦ **Gerra poliedriko hau ezberdina da**

### ezagutu ditugun beste batzuekiko?

Nik esango nuke oso desberdina dela. Siria lurralde oso urbanizata da. Mapan ikusten duzu lurralde handi bat, baina erdia baino gehiago basamortua da. Jendea bizi den lekua nahiko txikia da. Landa lur batzuk egon badaude. Baina biztanleria gehiena non bizi den ikusita, gerra urbano baten aurrean gaude, gatazkaleku nagusia izan dira hiriak. Hama eta Homs Bilbo baten tamainakoak dira. Damasco da Bartzelona baten tamainakoa, eta orain gerra bizia ematen ari den hiria Aleppo da (gerra hasi baino lehen bi milioi biztanletik gora zituen). Gauza guztiz berria da, XXI. mendekoa: mega-hiri baten barruan kristoren gerra txikitzailea izaten ari da, gerra horrek izaten dituen berezitasun guztiekin. Izugarritzko gerra da eta izugarritzko errefuxiatu kopurua sortzeko prozesu beldurgarria gertatzen ari da.

#### ♦ Zer dago jokoan?

Garrantzi handiena geostrategikoa izan da. Siria beti izan da Ekialde Ertaineko gurutzalekua. Aintzinateko bataila handienetako batzuen gertalekua izan da. Siria kontrolatzea Ekialde Ertaina kontrolatzea da. Siria kontrolatzen duenak kontrolatzen ditu da Mediterraneoko sARBIDEA eta Anatoliako goi lautada, azken finean handik Sinai eta Afrika alderako bideen kontrola dago. Leku izugarri estrategikoa da. Hori kontrolatzen duenak Ekialde Ertainaren giltza badauka –behar bada sarraila ez du edukiko–.

Siriak ondasun natural asko ez dauzka –petrolio badauka, baina ez da horrenbesteraino–. Baina petrolioak pasatu behar duen lekuan dago. Horregatik izugarritzko garrantzia dauka.

Pentsa dezakegunaren kontra, siriar gizarteak ez da gizarte atzeratu edo nomada bat, ez. Betidanik izan da gizarte aurreratua, elite intelektual eta kultural handiak dituena. Alde horretatik, herrialde aurreratu-moderno bateko gerra bat da.

#### ♦ Mendebaldeak zer-nolako erantzukizuna du gerra horretan?

Gerra hau bultzatu duten guztiek dute erantzukizun bat; ez dut esango parekoa.

Erantzukizun horren lehen faktorea izan da gaizki egindako kalkulua. Siriako gerra hasieratik geldi zitekeen. Nik hori oso garbi daukat. Beste leku batzuetan pentsa dezakegu gerra ekidinezina dela. Siriako kasuan gerra kapritxosoa edo kanpotik sustatutakoa izan da. Aktore batzuek hasieran –Turkia eta Saudi Arabia–, eta jarraian eta segituan Frantziak eta Erresuma Batuak, pentsatu zuten Libian gertatutakoa gerta zitekeela, alegia, Gadafi nahiko erraz bota izana (gero ikusi dugu zer gertatu den Libian, estatuaren desagerpena eta anabasa ikaragarria). Sirian gerra kanpotik auspotu ahal izan zen. Gehiengo sunita ez zen botere politikoa-ren lehen jabea, baina ezin zuen esan pertsegitua zegoenik edo ez behintzat besteak baino pertsegituagoa zegoenik. Siritan oposizioa, oso muturrekoa, islamismo salazista militantea, betidanik existitu da, leku indartsuak izanda. Baina horrek ez zuen ordezkaten Siriako gizartearen parte handi bat. Parte sunitari sinetarazi zitzaion kanpoko laguntzarekin Baxar al-Assad bota zezaketela eta botere guztia bere eskuetan eduki zezakeela. Xii-tek gogor erantzun zuten hasiera-hasieratik. Erantzukizuna hor dago: gerra hau hasi gabe gera zitekeen. Baina hasiarazi zen eta orain ez dakite nola geldiarazi.

*“Siria beti izan da gizarte aurreratua, elite intelektual eta kultural handiak dituena”*

#### ♦ Estatu Islamikoaren presentzia mito bat da?

Ez da mito bat. Gerra hau Irakeko gerrarekin uztartu behar dugu. 2003ko Estatu Batuen inbasioarekin hasi zena ez da bukatu: islamismo militante erradikala kupidarik gabe bultzatu du Saudi Arabiak. Funtsean, bere inteligentzia zerbitzuen kume bat da. Gaur

egun, seguraski, kume horrek eskuetatik ihes egin die, Al-Qaedaekin gertatu zitzaion bezala. Mundu mailako ezinegon handi bat eratu dute. Askotan aktore garrantzitsuak izaten ari dira kanpotik joandako borrokalariak, *carne de cañon* gisa erabiltzen direnak. Estatu Islamikoak lurralde kontrol bat lortu du. Eta finantzazio sistema bat eratu du ateratzen duten petrolio saltzetik (onuradun zuzena Turkia izan da merkatuko prezioaren erdian lortuz). Beste finantzazio iturria da ondare arkeologikoa saltzea, horrek ere erosleak baititu.

#### ♦ Gerra honek sekulako errefuxiatu oldea sortu du. Zein da haien egoera?

Arazoa lehen egunetik sortu zen, baina Europan ez da ezer adostu duela urtebetera arte, errefuxiatuen problema hau Turkiari izugarria egin zaiotzan. Errefuxiatuen auzia elementu politiko moduan erabiltzen hasi da Turkia, batzuei Europako bidea ematen hastean. 2011-2012az geroztik, milaka errefuxiatu zeuden Libanon –une honetan, milioi eta piku egongo dirahan eta herrialde txiki batean izugarritzko desoreka humanoa da–. Mundua ez dago prestatuta horrenbeste jendetza duinki hartzeko. Oso posibilitate txikia dute etxera bueltatzeko.

#### ♦ Zein da Europaren erantzukizuna?

Gizakiei laguntzea oinarriko egin-kizuna du beste gizaki batek. Europak erantzukizun politiko-morala dauka. Frantziak, Erresuma Batuak, Turkiak, Europako Batasunak oro har, zerikusi handia dute gerra hau hasi izanarekin. Ez zuten ezer egin gerra hastear zenean. Beraz, orain ezin dute ezikusienak egin ondorioekin. Europak gogoeta sakon bat egin beharra dauka eta irtenbideak asmatu behar ditu.

#### ♦ Herritarrok zerbeit egin dezakegu?

Gupidarik gabe presio egin behar diegu gobernuei. Arazoa konpon zitekeenean ez dute konpondu eta exiitu behar zaie gizatasunik gabeko egoera hau konpontzeko.

# “Zaila egiten zaigu gure-gureak diren ametsak publikoki azaltzea”

## ► JOKIN URAIN LARRAÑAGA IDAZLEA ETA PRESO OHIA

*Ametsen liburua* koordinatu du Jokin Urain Larrañaga idazle eta preso ohi mendaroarrak. 426 preso, iheslari, eta erbesteraturen idatziak, marrazkiak eta argazkiak eta 47 euskal artistaren lanak jaso ditu bertan. Askatasuna galdu dutenek amets duten hori adierazi dute hainbat modutan eta tartean dira elgoibartarren eta mendaroarren lan batzuk ere. Liburua martxoaren 16an, eguaztenean, aurkeztuko du Urainek berak 19:30ean Elgoibarko Kultur Etxean.

- IRATI AGIRREAZALDEGI-

### ◆ Nola sortu zen *Ametsen liburua* idazteko ideia?

Liburuaren oinarrian galdera bat dago: “askatasuna galdu dutenek zer dute amets?” Ideia hori proposatu zidan liburua kaleratu duen Astero argitaletxeak 2014an eta bitan pentsatu gabe onartu nuen abentura edo amets hori.

### ◆ Zer jasotzen du liburua?

Azken 50 urteotan espexetik edo erbestetik pasa direnen eta daudenen desioak, ametsak, ilusioak, memoria eta bizipoza jasotzen ditu, ez gutxia, baina bai txatal bat.

Preso edo erbestean zeudenei edo noizbait egondakoei eskatu genien galderari erantzuteko folio baten alde batean nahi zuten moduan. Batzuek marrazki bidez erantzun dute eta beste batzuek idatziz (bertsoak, poesiak, eskutitzak...). Horrez gain, egileek argazkiak jarri ditugu eta hainbat euskal artistaren lanak ere.

### ◆ Zer izan da zailena ametsak biltzeko lan horretan?

Batzuetan kartzelan bueltatu dizkigute eskutitzak. Besteetan ez da erraza noizbait preso edo erbesteratu bizi izan den jendearengana iristea ez dugulako datu baserik eta herriz herri harreman sareak sortu behar izan ditugu. Bestalde, ametsak intimoak dira askotan eta zaila egiten zaigu gure-gureak diren ametsak publikoki azaltzea liburu baterako, lotsa gara. Beraz, ez da erraza izan jendea konbentzitzea.

### ◆ Eta politena?

Oso atsegina izan da kartzelatik atera berritan (sei hilabetera), presoekin harremanetan jarraitzea eskutitzen bitartez edo senideekin. Antzinako lagunak berriz ikustea eta liburu hau osatzea betetako amets bat izan da

### ◆ Zure ametsak ere kaleratu izan dituzu espexetik idatzitako liburuetan, baina hau da kalean egin duzun lehen proiektua. Zein alde dago?

Barruan egindako lanak norbere zeldako mundu txiki horretan bizitzen ditu eta ez du inguruan, kalean gertatzen ari denari bu-



Arg.: Oarsoaldoko Hliza

ruzko nozio zehatzik senideen bitartez ez bada. Kalean parte-hartzaileekin edo aurkezpenetan jarraipena zabala da. Gauza bat da norbere intimitatean bizitzea eta bestea zabaltasunean.

### ◆ Sorkuntzarako leku egokia al da espextea?

Egunerokoan behar ditugun amets txiki horiek eramaten gaituzte zerbait egitera kartzela den munstro hori gainera eroriko ez bazaigu. Nola edo hala kartzela psikikoa deseraiki behar da eta borroka horretan gerorako ametsen nahiak eraman gaitu zerbait egitera. Bakoitzak bere neurrian sortzeko leku egokiak denak dira.

### ◆ Literaturarik ezean zer lirateke zuk kartzelan pasatu dituzun urteak?

Alferra naiz kirolerako eta irakurketa eta idazketarako bidea hartu nuen eta oso lagungarri izan zitzaidan.

### ◆ Jokin Urairen hurrengo ametsa?

Guk badaukagu ardura gure aldiko memoria, gure bizipenak eta gure historia jasotzeko. Nik bereziki presoen edo senideen inguruan azken 50 urte hauetan izan ditugun jazarpenen inguruan zerbait idatzi nahi nuke. Orain artekoak beti izan dira kartzelari eta inguruari buruzkoak eta aurrerantzean ere horrela segi nahi dut.

## Highlightsen doinuek Sotoko hotsak ur azpitik atera zituzten barixakuan



Aurreko asteburuko euri-jasek Kultur Etxeko Sotoan eragindako kalteak konpondu –beraien ekipoan ere kalte txikiak eragin zituen– eta urez baino musikaz bete zuten Sinuosek Sotoa martxoaren 4an. Arrigorriaga eta Basauriko Highlights taldeak orain dela hogeitun urte jendea mugitzen zuten rock erritmoak oraindik ere bizirik daudela erakutsi zieten Sotora gerturatutakoei. Sotoko Hotsak egitasmoaren baitan hurrengo saioa apirilaren 8an izango da, eta Mendaroko Munlet taldea entzuteko aukera eskainiko du Sinuosek.

## Irune Arriola eta Nerea Sasiain Oiartzungo Soinu Zahar Txapelketan

Domekan jokatu zen Oiartzungo Soinu Zahar Txapelketa hainbat neska gaztek hartu zuten parte tartean Elgoibarkoek, Irune Arriolak eta Nerea Sasiainek. Iru- nek lehenengo txapelketa zuen arren ondo aritu zen eta urtetako esperientzia duen Nereak maila bikaina erakutsi zuen. Hurrengo txapelketa Elgoibarren izango da apirilaren 9an eta 10ean eta han arituko dira Aimar Almortza, Markel Goenaga, Irune Arriola, Gaizka Uranga, Amaia Sasiain, Maddi Zabala, Lorena Etxaniz, Naroa Lopez, Irati Marcos, Oihane Agirrebeña eta Nerea Sasiain. Antolatzaileek elgoibartarrak gonbidatu nahi dituzte dantzaz gozatzeraz.



## Udal Musika Bandaren emanaldia domekan

Domekan, otsailaren 13an, Elgoibarko Udal Musika Bandaren kontzertua izango da hilabeteroko ohiturari jarraituz. 12:30ean hasiko da Herriko Antzokian. *Instart Concert* (H. Walters), *La Storia* (J. de Haan), *Jamaican Folk Suite* (H. Walters), *Cossack Folk Dances* (F. Cesarini), *La Millor Terra del Mon* pasodoblea (E. Rosillo) eta *Mexican Pictures* (F. Cesarini) piezak eskainiko ditu bandak. Oraingoan Gorka Mujika Urainen zuzendaritzapean arituko dira musikariak.

## Jaietarako proposamenak jasotzen ari da Udala

San Bartolome jaiak oraindik urruti dauden arren, Udala hasi da piskanaka prestaketa lanekin. Horretarako, herritarren ideiak eta nahiak jaso nahi ditu eta elgoibartarrei dei egin die, norbaitek jaietarako edozein proposamen izanez gero, martxoaren 31 baino lehen Kultura Sailera bideratzeko. Izan ere, jaiak herritarrekin elkarlanean antolatzea da Udalaren asmoa. Parte hartzeko telefonoz deitu daiteke 943 74 21 58 zenbakira edo e-postaz [kultura@elgoibar.eus](mailto:kultura@elgoibar.eus) helbidera idatzi.

## Pazkoa gailera tailerra egingo dute Mendaron

Ukrania-Euskadi elkarteak antolatuta ume eta gaztetxoentzako Pazkoa gailera tailerra egingo dute Mendaron martxoaren 18an. Hiru txanda egingo dituzte adinaren arabera: 17:00-18:00 (6-8 urte); 18:00-19:00 (9-10 urte); 19:00-20:00 (11-14 urte). Lagun Betikoen lokal zurian izango da tailerra. Parte hartzeko aurrez eman behar da izena 629 404 838 telefono zenbakira deituta.

## Elgoibarko eta Mendaroko 66 emakumek bukatu zuten Lilatoia



Lilatoia 27. edizioa jokatu zuten martxoaren 6an Donostian, eta 5.000 emakumek baino gehiagok hartu zuten parte, eurari eta hotzari aurre eginez. Donostiako erdigunean zehar bost kilometro egin zituzten antxitxika. Antolatzaileen arabera, parte hartzeak %25 egin du gora aurreko urteekin alderatuta. Elgoibartik eta Mendarotik ere asko izan ziren parte hartu zuten emakumeak: 50 elgoibartar eta 16 mendaroar, hain zuzen ere (iaz 73 izan ziren). Gure ordezkarien artean, Maria Arrillaga izan zen azkarrena, 23 minutu eta 59 segundoko denborarekin, eta 101. postuan sailkatu zen. Edonola ere, lasterketa baino gehiago da Lilatoia, kirola eta aldarrikapena uztartzen dituen proba. (Argazki gehiago eta sailkapenak: [www.barren.eus](http://www.barren.eus))

## Laugarren garaipena jarraian lortu du Concepto Egilek



Aurrera Vitoria taldeari 5-2 irabazita, jarraian lortzen duen laugarren garaipena eskuratu zuen Concepto Egile areto futbol taldeak joan zen domekan, IMH kiroldegian. Arabarrek hobeto jokatu zuten lehen zatian eta bi goleko aldea (1-3) izan zuten alde. Baina lehen zatiaren ondarrean, Ikerrek gol erabakigarria sartu zuen etxeoentzat. Conceptoko jokalariek indar handiagoz irten ziren kantzara bigarren zatian, eta markagailuari buelta eman zioten. Iker, Imanol (argazkian), Trevi, Marcos eta Yahya izan ziren etxekoek golegileak. Sailkapeneko seigarren postuan dago Concepto, 36 punturekin, eta liderrari bisita egingo dio zapatu honetan. Zierbenaren aurka jokatu du.



## Elgoibartarrak txapelkun Euskadiko mendiko auto igoeretan

Pilotu elgoibartarrek emaitza onak eskuratu dituzte Euskadiko mendiko auto igoeretak txapelketan. Auto historikoen mailan sailkapen nagusiko lehen postua lortu du Josemi Gabilondok (Alpine A110) eta hirugarren egin du Jesus De La Fuentek (Seat 124). Junior mailan, berriz, Unai Usobiaga (Citroen AX Sport) gazte elgoibartarra gailendu da. Guztira zazpi proba jokatu dituzte.

## Aloñara mendi irteera

Morkaiko mendi taldeak Aloñara mendi irteera antolatu du martxoaren 13rako, Herri Eskolako eta Elgoibar Ikastolako gurasoekin elkarlanean. Mintxetako aparkalekuan elkartuko dira 09:30ean. Handik autoz joango dira Arantzazuraino. Duru gaineraino oinez joango dira, eta Urbiara doan mendi bidea utzi ostean, Aloña gaineraino igoko dira.

## Urpeko Ekintza eta Irudi Jardunaldiak

Gaurtik domekara bitartean egingo dituzte III. Urpeko Ekintza eta Irudi Jardunaldiak, Olaiizaga kiroldegian. Erakusketaren inaugurazioarekin hasiko dira jardunaldiak, gaur, 17:00etan. Gero, 18:00etan, Kantauri Garbia Elkartearen aurkezpena egingo dute. (Egitaraua agendan).



## Elgoibar Ikastolak Pilota Eguna antolatu du biharko



**P**ilota Egunaren 19. edizioa antolatu du Elgoibar Ikastolak zapaturako. 6 eta 12 urte bitarteko 54 umek hartuko dute parte Kalegoen plazako frontoian jokatuko dituzten partidetan, 10:30etik aurrera. Hala ere, euria egiten badu, Ikastolako frontoian izango dira partidak. Lagunak Pilota Eskolako kideek jokatuko duten partidarekin amaituko da Pilota Eguna. Elgoibar Ikastolak gaztetxoaren artean pilota, eta oro har, kirolerako zaletasuna sustatzeko asmoz antolatu du Pilota Eguna.

## Nora Kortaberriak Lau Nazioen Txapelketa jokatuko du Espainiako eskubaloia selekzioarekin



Junior mailako Espainiako eskubaloia selekzioaren deia jaso du, beste behin ere, Nora Kortaberria elgoibartarrak. Espainiako selekzioak Errusian jokatuko den Munduko Txapelketako sailkatze fasea jokatuko du Polonian, martxoaren 18tik 20ra bitartean. Lehiaketa hori prestatzeko Lau Nazioen Txapelketa jokatuko dute asteburu honetan, Alemania, Frantzia eta Portugalgo selekzioen aurka, La Orotavan (Tenerife). Sagrario Santama hautatzaileak txapelketa amaieran jakinaraziko du Poloniarira eramango dituen jokalarien zerrenda. Txapelketa prestatzen ari zela elgoibartarren bisita jaso zuen Kortaberriak (argazkian, aurreko ilaran eskumatik hirugarrena), Lauko taldea ere Kanarietan izan baita Ohorezko Zilarrezko Mailako partida jokatzen. Elgoibartarrek 30-26 galdu zuten Tejina taldearen kontra. Laukok Logroño liderraren aurka jokatuko du zapatuan, Olaizagan.

## Emaitzak

### FUTBOLA

Haundi 1 – Aloña Mendi 0 (Oho. erreg.)  
 Orereta 1 – Elgoibar 4 (1. erreg.)  
 Elgoibar 4 – Bergara 0 (A kadeteak)  
 Eibartarrak 2 – Elgoibar 6 (B Kadeteak)  
 Elgoibar 1 – Ostadar 3 (Oho. inf.)  
 Elgoibar 1 – Aizkorri 0 (Inf. Txiki)  
 Anaitasuna 4 – Elgoibar 1 (Ale. errendimendua.)  
 Anaitasuna 2 – Elgoibar 4 (Ale. partehartzea)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 5 – Aurrera Vitoria 2 (Nazional B)

### ESKUBALOIA

Tejina 30 – Lauko 26 (Senior emak.)  
 Alcorta Forging Group 34 – Gure Auzune 28 (Senior giz.)  
 Gabaz 29 – Urnieta 23 (Sen. giz.)  
 Egia 17 – Tecnifuelle 17 (Jub. nesk.)  
 Beristain Elg. 23 – Pulpo 23 (Jub. mut.)  
 Aloña 18 – Pneumax Elg. 27 (Kad. nesk.)  
 Federopicos Ikus 19 – Bidasoa B 15 (Kad. nesk.)  
 Bankoa Elg. 29 – Saieko 33 (Kad. nesk.)  
 Dario Bus 27 – Ereintza 17 (Inf. nesk.)  
 Cometel Elg. 29 – Aloña A 21 (Inf. nesk.)  
 Leizaran B 18 – H. Txarriduna 20 (Inf. mut.)  
 Usurbil A 21 – Murgil Elg. 35 (Inf. mut.)

## Agenda

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 12  
 10:00 Elgoibar – Antzuola (1. Kadete)  
 12:00 Elgoibar – Bergara (Oho. Jub.)  
 16:30 Haundi – Hernani (Oho. Erreg.)  
 Domeka, 13  
 16:30 Elgoibar – Munibe (1. erreg.)

### ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapatua, 12  
 10:00 H. Txarriduna – Urola (Inf. mut.)  
 11:15 Cometel – Trapezia Taberna Pulpo (Inf. nesk.)  
 12:30 Dario Bus – Ordizia Iruena (Inf. nesk.)  
 16:00 Pneumax – Kukullaga (Kad. nesk.)  
 17:45 Tecnifuelle – Ereintza (Jub. nesk.)  
 19:30 Lauko – Logroño (Senior emak.)

### Domeka, 13

10:00 Murgil – Bidasoa (Inf. mut.)  
 11:30 Astigarraga – Bera Bera (Kad. nesk.)

**LANA.....****Eskaerak**

Adinekoak zaintzen eta etxeak zein elkarteak garbitzen egingo nuke lan. 617 571 210

Etkez etxe garbiketa lanak egiteko prest. 637 102 725/943 744 033

Adinekoak zaintzeko prest. Interna edo bestela orduka. 688 858 391

Adinekoak zaintzeko prest. Interna edo bestela orduka. 688 638 980

-Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Sukaldari laguntzaile lana ere hartuko nuke. 666 008 974

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest, orduka. 28 urte ditut. Esperientzia daukat. 632 372 864

Margotze-lanak egiteko prest. Oso merke. 15 urteko esperientzia dut. 634 245 882

Euskalduna prest adinekoak zaintzeko edo interna aritzeko. Erizain laguntzaile titutula dut. 688 826 968

Edozein lan egiteko prest: adinekoak zaintzen, garbiketa lanak... 656 866 255

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako (tabernak, portalak, etxebizitzak) prest. 631 790 555

Adinekoak zaintzeko prest. Interna, orduka edo ospitalean gauak pasatuko nituzke. 631 534 125

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. Esperientzia handia dut. 659 266 248

lan bila ari naiz. Esperientzia handia adinekoak zaintzen. 690 064 225

Adinekoak zaintzeko prest, orduka edo interna moduan. 632 911 709

Arotz moduan berehala lanean hasteko prest. 631 209 366

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Etxean bertan bizitzen edo orduka. 658 273 486

Astean zehar lan egingo nuke: etxe garbiketa, nagusiak paseatu eta haien jarraipena egin... Diplomata: etxeko asistentzia auxiliarrak. Esperientzia eta informeak. Euskalduna. 675 711 658

Etxeko lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest. 643 398 715

Adinekoak zaintzen lan egingo nuke etxean bertan bizi izaten edo orduka. Eskarmentua dut. Berehala hasteko prest. 633 808 931

Umeak eta adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. Etxean bertan bizi izaten edo gabez bakarrik. 631 832 388

Sukaldari laguntzaile edo adinekoen zaintzaile lanetan jarduteko prest. 677 259 560

Adinekoak zaintzeko prest. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Baserriko lanak edo garbiketa lanak egiteko prest. 686 077 316

**Eskaintzak**

Pertsona baten bila gabiltza 3 urteko umea zaintzeko arratsaldeetan (16:30-18:30). Euskara jakitea baloratuko da. Oihana. E-posta: [maala105@gmail.com](mailto:maala105@gmail.com)

Epe motzean, Ilunpe Taberna hartzeko prest dagoen norbaiten bila gabiltza. Informazio gehiagorako, tabernan galdetu edo deitu. 943 254 252 / 645 599 810

Pertsona bat behar dugu batxilergoko 2. mailako ikasle bati marrazketa teknikoko eskola partikularrak emateko. 620 459 966

**ETXEBIZITZAK.....****Alokairua**

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. 450 euroa arte ordaintzeko prest. 626 879 255

**LOKALAK.....****Alokairua**

Xagua taberna alokatzen da, San Franzisko kalean. 605 741 485

**Salgai**

Lokala salgai Olaso poligonoan. 181 metro koadro ditu. Prezio interesgarria. 677 788 627

**GARAJEAK.....****Salgai**

Garaje itxia salgai Jausoron (Santa Klara bidean). Auto bat eta bestelakoak gordetzeko lekua ditu. 696 874 842

**BESTELAKOAK.....**

1966an jaiotakoan jaiarri maiatzaren 28an. Luntxa, bazkaria eta askoz gehiago gure 50 urteak ospatzeko! Izena emateko sartu 66 € Laboral Kutxako kontu honetan: ES39 3035 0007 28 0071 132266. Dirua sartzearan eman zure izena, bi abizen eta telefono zenbakia. Izena emateko azken eguna apirilak 28. Zatoz, mundiala izango da!

Muleta galdu dut autotik jausita. Pedro Muguruza kaletik abiatu nintzen. Norbaitek aurkitu badu deitu mesedez. 943 531 648



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**

**943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)**



**Etxebizitza errentan hartu behar dut eta alokatze-kontratuan, jabeak, klausula bat sartu nahi du, etorkizunean beharbada nire kalterako izan daitekeena. Jakin nahi nuke nik, errentari naizen aldetik, nire mesederako izan daitezkeen beste baldintza batzuk sartu ditzakedan.**

Hitzarmenerako askatasuna dago eta bi aldeek egoki ikusten dituzten akordioak gaineratu ahal izango dizkiote alokairu-kontratuari. Hala ere, ezingo da sartu derrigorrez bete beharreko arauen aurkako klausularik. Horiek nahi eta nahi ez sartu beharko dira kontratuan alokatzaile eta maizterraren eskubide guztiak bermatzeko. Bi aldeetako batek derrigorrez bete beharreko arauen aurkako klausularen bat sartuz gero, erabat deuseztuko da hitzarmena. Aztertu beharko da kontratua formalizatzeko orduan hitzarmen hori indarrean dauden derrigorrezko arauen aurkako al den. Lege berezia da Hiri Errentamenduen Legea eta maizterra babesten saiatzen da. Beraz, zehazten da legeak ezarritako aginte-arauen aurkako hitzarmenak baliogabeak izango direla maizterraren kalterako izanez gero. Zuk, errentari zarenez gero, eskatu ahal izango duzu kontratuan sartzeko komenigarritzat jotzen dituzun akordio edo klausulak.

**AHOLKUA:** Kontratuak babesteko printzipio orokorraren arabera ez da kontratu guztia baliogabetuko, maizterrarentzat kaltegarriak diren klausulak besterik ez.

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Mikel**, zure zazpigarren urtebetetzean. Muxu potolo bat denon partez.



Zorionak, **Nahia**, bihar 6 urte beteko dituzulako. Ondo-ondo pasa eta muxu potolo bat familiakoen partez.



Zorionak, **Arike**, zure lehen urtebetetzean. Muxu haundi bat maixia familiako guztien partez.



Zorionak, **Mara**, urteko bat bete duzulako. Muxu haundi bat maixia, etxekoan partez.



Zorionak, **Maite**, zure 5. urtebetetzean! Muxu haundi bat etxeko danon partez.



Zorionak, **Martin**, gaur 6 urte bete dituzulako. Belarritik sei tirakada eta patxo potolo bat etxeko guztien partez.



Zorionak, **Axier**! Oso ondo pasa zure bosgarren urtebetetzean. 5 muxu haundi, Alarik, aita eta amaxoren partez!



Zorionak, **Lara**. Astelehenean 6 urte. Etxekoan eta bereziki anaia Paul eta Nasyren partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak, **Telmo** eta **Inigo**, 4 urte beteko dituzue eta asteazkenean. Patxo potolo bat, familiakoen eta bereziki Antxon eta Nerearen partez.

Erretratu bakarreko agurra:

4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Jon Aranao  
Guillermo Torres

Elgoibar  
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337  
Astelehenetik ostirakeraz: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbatak: 11:00 - 13:00

Inoizpeindagi zerbitzua eskatzen dugu.  
Datu orduko hartzeak.

**A. Garate**

Era guztietako igeltzeritza lanak egiten aditua  
[angelmgarate@gmail.com](mailto:angelmgarate@gmail.com)  
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

**610 226 651**

Lehen aldian...

PENTSATZEN NUENA BAINO EROSOAGO SENTITU NINTZEN.

Egin ezazu lentillen lehen froga bat doan. Miopia, hipermetropia, astigmatismo edo ikusmen nekatuarentzat.

**Alcon**  
a Novartis company

AIR OPTIX

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
RPS 183/12 **optika audio**  
[www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

Elgoibar optika audio enpresaren marka erregistratuta dago. Produktuak eta zerbitzuak ez dira erregistratuta. Bereziki 2019/04/02 (2019ko abuztuaren 2a)ko Erreklamazioak eta Kontsumoaren Defendatzearen Legearen arabera. Produktu hau erabiltzean zehar erabiltzaileak bere erantzukizuna hartu behar du. Lehen erabiltzean laguntza behar duenak, zuzenean erabiltzailearen laguntza behar du. Erabiltzaileak erabiltzean zehar erabiltzailearen erantzukizuna hartu behar du.

## 11 BARIXAKUA

**14:30** Eskolarteko Bertsolari Txapelketa. Saio didaktikoa. Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto. Elgoibar Ikastolan.

**17:00** Urpeko ekintza eta irudi jardunaldiak. Erakusketa. Olaizaga Kiroldegian.

**18:00** Hitzaldia: Kantauri Garbia elkar-  
tearen aurkezpena. Olaizagan.

**20:30** Antzerkia: *Datorren urtean hobeto*. Herriko Antzokian.

**22:30** Motxailak bertsotan saioa: Andoni Egaña, Oihana Bartra, Alaia Martin eta Agin Rezola. Gai-jartzaile: Iñigo Zubiaurre. Mendaroko San Agustinen.

## 12 ZAPATUA

**10:00-13:00** Ezker Abertzalearen Abian prozesua. Eztabaida fasearen bigarren bilera. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

**09:00-13:00** Errigorako olioaren banaketa. Merkatu Plazan, Ballibar baserriaren postuan.

**10:30** XIX. Pilota Eguna. Antolatzailea: Elgoibar Ikastola. Kalegoen plazan (euria

eginez gero, Ikastolako frontoian).

**18:00** Hitzaldia: Miguel Castro (Urbizi). Urpeko ekintza eta irudi jardunaldiak. Olaizaga Kiroldegian.

**23:00** Kontzertua: Joseba B. Lenoir eta DJ Mg\_Sound. *Errefuxiatuak: Helmugarik gabeko ihesa* zikloa. Sarrera: 3€. Sute-gixa gaztetxean.

## 13 DOMEKA

**09:30** Mendi irteera Aloñara. Morkaiko, Herri Eskola eta Ikastola. Mintxetako apartamentuetik,

**10:30-13:00** Urpekaritza bataioak. Olaizagako igerilekuan.

**12:00** Martxa Laranja Martuteneko espetxera, Ainara Ladroni eta beste gazteei elkartasuna adierazteko. Espetxe aurrean.

**12:30** Kontzertua: Elgoibarko Udal Musika Banda. Herriko Antzokian.

**16:30** Antzerkia: *Azken eguzkilorea*. Patata Tropikala. Herriko Antzokian.

**19:00** Errefuxiatuak: Helmugarik gabeko ihesa. Filma. *Ein Augenblick Freiheit*. Sute-gixa gaztetxean.

## 15 MARTITZENA

**18:00-20:00** Literatuta tailerra. *Maria Estuardo*, Stefan Zweig. Hizlaria: Consuelo Carrere. Antolatzailea: Haizea. Goizon Garate Udal Liburutegia.

## 16 EGUAZTENA

**19:00** Inazio Bereziartua Musika Eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

**19:30** Liburu aurkezpena: *Ametsen Liburu*. Hizlaria: Jokin Urain. Elgoibarko Kultur Etxean.

## 17 EGUENA

**19:00** Inazio Bereziartua Musika Eskolako dantza jaialdia. Herriko Antzokian.

## 18 BARIXAKUA

**21:30** Zine foruma: *Clara Campoamor. La mujer olvidada*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## MOTXAILA ASTEBURUA

Martxoak 11 eta 12

### 11 BARIXAKUA

**22:30** *Motxailak bertsotan* saioa: Andoni Egaña, Oihana Bartra, Alaia Martin eta Agin Rezola. Gai-jartzaile: Iñigo Zubiaurre. Mendaroko San Agustinen.

### 12 ZAPATUA

**11:00** Bilbotik antzerkia, su-artistak Aragoitik, ipuinak, bertsoak, irrintziak eta poemak. Haizbeltz koban.

**15:00** Bazkaria. Gaztetxean.

**Ondoren**, Musika elektronikoa (Turri eta Vela) eta Inozentzioren showa.

**19:00** Trikipoteo maratoia, Agosti eta Barrenarekin. Gaztetxetik abiatuta.

**21:00** Su-ikusizuna: Os Diaples D'a Uerba. San Joseko plazan.

**Gero**, Trikimaratoia gaztetxeraino.

**00:30** Erromeria. Oharkabe taldea. Gaztetxean.

**Bukatzeko**, *Azken guda dantza*. Gaztetxean.

## Zinea (Herriko antzokian)



### 'El renacido'

12 Zapatua,  
19:00 eta 22:15

(Jatorrizkoa azpiztituluekin)

13 Domeka, 19:00  
14 Astelehena, 21:30

**Zuz.:** Alejandro Gonzalez Iñarritu. AEB, 2016. (2 ordu 36 min.). **Western eta abentura.** **Aktoreak:** Leonardo DiCaprio, Tom Hardy, Domhnall Gleeson eta Will Poulter. Amerikako baso sakonetan tranpa-jartzaile bat larri zauritu eta bere taldeko kide traidore batek baztertuta utziko du. Borondatea arma bakartzat hartu eta negu gogorrari eta Amerikako etnien arteko etengabeko gerrei egin beharko die aurre. Abentura heroiko eta nekazinean bere taldekide traidoreari mendekua hartzen saiatuko da.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### G U A R D I A K

09:00 - 22:00

- 11 Barixakua YUDEGO
- 12 Zapatua ORUESAGASTI
- 13 Domeka ORUESAGASTI
- 14 Astelehena BARRENETXEA
- 15 Martitzena IBAÑEZ
- 16 Eguaztena GARITAONANDIA
- 17 Eguena BARRENETXEA
- 18 Barixakua FERNANDEZ

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara  
ETXEBERRIA (Elgoibar)  
Santa Ana, 1  
Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)  
Fermin Calbeton, 19  
Tel.: 943 201 110

\* Fernandez: Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9  
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

## Otsailean hildakoak

**- Nikasia Elordi Arriaga**

92 urte, otsailak 6

**- Pedro Sanchez Lesmes**

91 urte, otsailak 8

**- Maria Visitacion Bidasolo  
Ibarguren**

88 urte, otsailak 12

**- Juan Luis Etxabe Pagadizabal**

90 urte, otsailak 13

**- Josefa Gonzalez Cobian**

95 urte, otsailak 13

**- Agustin Gurrutxaga Garate**

98 urte, otsailak 15

**- Jose Mari Loyola Garate**

67 urte, otsailak 18

**- Elena Miguez Perez**

86 urte, otsailak 22

**- Pedro Maguregi Osoro**

86 urte, otsailak 22

**- Eulogio Echeverria  
Mendizabal**

94 urte, otsailak 23

**- Maria Delfina Fernandez Cid**

57 urte, otsailak 23

**- Jose Etxeberria Agote**

94 urte, otsailak 23

**- Maria Dolores Iriondo  
Igartua**

81 urte, otsailak 25

**- Luis Arakistain Arrieta**

69 urte, otsailak 25

**- Angeles Ansola Arana**

91 urte, otsailak 27



## ETXEBERRIA tanatorioa

Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

**KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.  
NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.  
ERJETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK**

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR

Telefonoak:

943 741 327 (24 orduz)

Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203

[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)



Iosu Juaristi



## Ainhoa Lendinez



Ez kolorerik, ez usainik, ez zaporerik. Halakoa behar luke, Elgoibarren bezala Saharan, Txinan edo Perun. Baina ura ere estalki erakargarrietan saltzen digute, eta edukia ahaztuta, koloreak, mezuak edo formak gidatuta erosten dugu. *Alzola*, *basque water* lehenengoz irakurri nuenean pentsatu nuen askorentzat gure hizkuntza ez dela ingelesa bezain erakargarria saltzeko, baina geurea kanpoan saltzeko formula eraginkorra izan zitekeela. Botilako azalpenak gaztelania hutsean irakurri nituenean pentsatu nuen, etxetik 2 kilometroira botilaratzen den ur hori ez dela horren etxekoa

agian. Baina polita da botila eta erosi egin dut, edo saldu egin naiz. Azken bi asteotan pertsona bati, bakarrari begira ikusi dut mundua. Elgoibarren bezala Saharan, Txinan edo Perun berbera den pertsona. Estalkia jartzen saiatu dira interes arabera saltzeko, eta horrek berak agerian utzi du, badela nor. Zer den erakargarritasuna berezko izatea, nolako indarra daukan eta nolako beldurra sortzen duen. Argizaiola itzaltzen saiatu denik ere bada, ez baitago ikusi nahi ez duena baino itsu handiagorik. Baina batzuentzat ez dago inolako estalkirik gabe menditik behera datorren ura esku ahurrean edatea baino ederragorik. Egarri ginen eta eman diguzu ura. Harrokeriarik gabe, harro. Ongi etorri.

*“Askorentzat gure hizkuntza ez da ingelesa bezain erakargarria saltzeko”*

*Eskertzak eta urteurrenak 943 744 112*




## *Mertxe Ondarra Etxabe*

2016ko martxoaren 9an hil zen, 79 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Fernando Alcorta Aulestiarte*

2016ko martxoaren 9an hil zen, 92 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Jose Maria Altuna Leyaristi*

2016ko martxoaren 5ean hil zen 84 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA


## *Paula Arrate Arriaga*

2015eko martxoaren 20an hil zen, 87 urte zituela. Haren oroimenez  
I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, martxoak 12,  
arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



## 1. Hortzen garbiketa hobea.

Hortzak elkarrekin estu bilduta baldin badaude bakterio plaka handiagoa metatzen dute. Beraz, zuzenduz gero errazagoa da eskuilarekin garbitzea edo hortzetako haria pasatzea.



## 2. Fonetika hobea.

Hortzak pilatuta izateak hizketa oztopatzen du eta norbere buruarekiko konfiantza eragina izan dezake.




## 3. Hobeto mastekatu.

Ahoa gaizki itxteak arriskuan jartzen du mastekatzeko funtzioa. Arazo digestiboak sor ditzake.


## 4. Hortzetako traumatismo gutxiago.

Okertutako hortzek apurtzeko edo jausteko arrisku gehiago daukate.




## 10. Autoestimua hobea.

Hortzak hobeto izateak norbere buruarekiko konfiantza handitzen du, baita norbera poztu eta irribarre polita ateratu ere.




## 9. Hortzetako pronostiko hobea.

Eskula hobeto pasatuz gero, hortzaka egoki eginez gero, eta entzietan arazo gutxiago izanez gero, haginek luzaroago iraungo dute.




## Ortodontzia: hortzak zuzen, polit bezain osasuntsu

A skotan pentsatzen dugu ortodontzia hortzak zuzen eta polit jartzeko dela, baina gero eta zuzenago eta horzkada hobea izan orduan eta onura gehiago izango ditu,




## 5. Buruko min gutxiago.

Ahoa gaizki itxteak artikulazioetan arazoak eragin ditzake eta hori da buruko min kronikoen arazo nagusia.




## 6. Entzia osasuntsua.

Hortzak ondo garbitzeak entzietako arazoak prebenitzen ditu.



## 7. Osasun hobea.

Txantxarrek eragiten dituzten bakterioak eta entzien arazoak bihotzeko problemekin lotuta daude.



## 8. Etorkizunean tratamendu gutxiago.

100% inbertsio segurua da. Ekonomikoagoa eta errazagoa da ortodontzia tratamendu bat garaiz egitea etorkizunean berri behar izatea baino.